

Unitate didaktiko digitalak: oinarriak, diseinua eta ebaluazioa



14.Ene - 21.Feb

Cód. @2-19

Edición
2019

Tipo de actividad
Cursos Online

Fecha
14.Ene - 21.Feb

Idiomas
Euskera

Validez académica
30 horas

DIRECCIÓN

Amaia Arroyo Sagasta, IKT on Hezkuntza-aholkularitza, Arduradun pedagogikoa

Comité Organizador

Fundación **BBVA**



Descripción

Ikastaro honek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saileko eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Baliozkotzea izango du (1868170028 Kodea) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat.

Konpetentzia digitala asko entzuten ari den arloa da gaur egun; baina, askotan, ikuspegi instrumentala oinarri hartuta ulertzen dugu irakasleok. Konpetentzia honen ikuspegi pedagogikoa eta holistikoa oinarri hartuta, unitate didaktikoen diseinuan aritzea da ikastaro honen helburua. Horretarako gakoak landuko ditugu: gako didaktikoak, diseinua egiteko; gako tekno-pedagogikoak, tresna digitalen erabilera pedagogikoari buruz hausnartzeko; eta ebaluazio-gakoak, egindako lanari eta gure jardunari buruzko ikuspegi kritikoa garatu eta ikasten jarraitzeko.

-30 ordu 4 astetan zehar (astero 7-8 orduko dedikazioa)

-Hasiera: 2018/01/14 Bukaera: 2018/02/21

-Tarifa bakarra: 80 euro

-Hizkuntza ofiziala: euskara

Objetivos

Konpetentzia digitalak ikas- eta irakas-prozesuetn duen garrantziaz jabetzea.

Unitate didaktiko digital bat zer den ulertzea.

Unitate didaktiko digitalak diseinatzeko eta ebaluatzeko autonomia garatzea.

Lankidetzan aritzea eta ikastea baloratzea.

Programa

15-01-2019 / 22-01-2019

Oinarri tekno-pedagogikoak eta diseinua

- Oinarri tekno-pedagogikoak
- Konpetentzia digitala
- Unitate didaktiko digitalen diseinua

22-01-2019 / 29-01-2019

Konpetentzia digitalaren arabera sailkatutako erreferentziazko tresnak

- Informazioa eta informazio-alfabetatzea lantzeko tresnak
- Komunikazioa eta kolaborazioa lantzeko tresnak
- Eduki digitala sortzeko tresnak

29-01-2019 / 05-02-2019

Talde-lana: unitate didaktiko digitalen diseinua

- Taldeak egin
- Unitate didaktiko digitalak diseinatzea

05-02-2019 / 12-02-2019

Talde-lana: unitate didaktiko digitalen materiala

Taldeka, egingako unitate didaktiko digitalen material digitala prestatu.

12-02-2019 / 19-02-2019

Unitate didaktiko digitalen ebaluazioa

- Taldeka, egindako unitate didaktiko digitala aurkezteko bideo bat egin.
- Ebaluazioa, errubrikan oinarrituta: autoebaluazioa eta koebaluazioa.

Dirección



Amaia Arroyo Sagasta

IKT on Hezkuntza-aholkularitza, Arduradun pedagogikoa
(Urretxu)

Hezkuntza Bereziko Magisteritzan diplomatua (2004), IKTak formazioan aplikatuta masterduna (2006), Komunikazio eta Hezkuntza Sarean masterduna (2012), eta Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea (2017): Konpetentzia Digitala, Norbere Ikas-Alorra (NIA) eta Erakundearen Ikas-Alorra (EIA) dira bere ikerlerroak. Hainbat zereginetan ibili izan da: irakasle, aholkulari, editore, ikasmaterial-egile... baina teknologia digitalaren ikuspegi pedagogikoa da bere interesgunea, eta zeregin guztietan ardatz horri eusten saiatzen da. Gaur egun, UEUK eta EHUK eskaintzen duten HEZikt graduondokoa irakaslea eta koordinatzailea da, baita arduradun pedagogikoa berak sustatutako IKT on hezkuntza-aholkularitzan ere. horrez gain, beste unibertsitate batzuetan irakasle aritu izan da: UNIRen, Lehen Hezkuntzako Graduan, eta Antonio Nebrija Unibertsitatean, Irakasle izateko masterrean eta IKT eta ikaskuntza digitala masterrean.

Profesorado



Josune Aranguren Mujika

Precios matrícula

MATRÍCULA

HASTA 16-01-2019

[Tarifa única](#)

80,00 EUR